



Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia

Saila: HIRIGINTZA

Espediente zk. 11-2106

AMOREBIETA-ETXANOKO UDALA EDIKTUA

AMOREBIETA-ETXANOKO UDAL PLANGINTZAKO AHOLKU
KONTSEILUAREN ERREGELAMENDUA BEHIN BETIKO ONARTZEARI
BURUZKO ESPEDIENTEA.

Amorebieta-Etxanoko Udal Plangintzako Aholku Batzordearen Erregelamendua behin betiko onartu da. Udalbatzak 2011ko uztailaren 29ko ohiko osoko bilkuran onartu zuen. Erabaki hori 2011ko abuztuaren 8ko 150. zk.dun Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen eta Udalbatzak 2011ko azaroaren 25ean egin duen ohiko osoko bilkuran behin betiko onarpena berretsi du. Toki Jaurpidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 70.2 art.an xedatutakoa betetzeko, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen da.

AMOREBIETA-ETXANOKO UDAL PLANGINTZAKO AHOLKU KONTSEILUAREN ERREGELAMENDUA

ZIOEN AZALPENA

Ekainaren 30eko 2/2006 Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Euskadiko Legeak herritarren parte-hartzea printzipio orokor gisa jasotzen du. Hori bideratzeko, egitura antolatzekeo planetan nahitaezkoak diren herritarren parte-hartzerako programak eta Udal Plangintzako Aholku Kontseilua sortzen dira.

Udal Plangintzako Aholku Kontseilua, hain zuzen ere, aholkurako eta eztabaidarako organo lokal bat da, hirigintza planak behin betiko onartzeko eskumena duten udalerrietan nahitaez eratu beharrekoa. Batzorde honen helburu nagusia hirigintza egitura antolamendurako tresna nagusiak –eta zehatzago esanda, Plangintza Nagusian jasotzen diren zehaztapenak betetzeko- aurkezteko eta onartzeko orduan, tokiko erakundearekin elkarlanean aritzea da.

2/2006 Legearen 110. artikulua, Kontseilu hori eratzeko eta ezaugarriak definitzeko, Udal Erregelamendu bat onartu beharra aipatzen du.

Helburu honekin, Amorebieta-Etxanoko Udalak, udalerriko Plangintzako Aholku Kontseilua sortzea eta haren funtzionamendua arautzea nahi du Udal Erregelamendu honen bidez, kontsultarako organo kolegiatua izatea, hirigintza plangintza estrategikoan herritarren parte-hartzea onartuko duena, era horretara udalerraren garapen iraunkorrari bultzada emateko. Erregelamenduaren bitartez Plangintzako Aholku Kontseiluaren oinarritzko egitura, funtzioak eta araubide juridikoa zehazten dira, Beti ere kontuan



Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia

izanda azaroaren 26ko Administrazio Publikoen Araubide Juridikoaren eta Administrazio-Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 22. artikulua jasotzen duela hori organo kolegiatua izan behar dela.

Ondorioz, ekainaren 30eko Euskadiko Lurzoru eta Hirigintzako 2/2006 Legeak berak bere 110. artikuluan –“Udal Plangintzako Aholku Kontseilua” osatzea, haren funtzionamendua, eraketa eta desegitea arautzen ditu- jasotzen duenarekin bat eginez, eta apirilaren 2ko Toki Araubidearen Oinarriak arautzeko 7/1985 Legeak bere 4. artikuluan arautzeko eta auto-antolamendurako ematen dion eskumena kontuan hartuta, Amorebieta-Etxanoko Udalak Erregelamendu hau onartzea egoki ikusten du.

ATARIKO TITULUA

UDAL PLANGINTZAKO AHOLKU KONTSEILUA

1. artikulua.- Xedapen orokorrak.

1.- Euskadiko ekainaren 30eko 2/2006 Lurzoru eta Hirigintzako Legearen 110. art.an aurreikusitakoaren arabera, Amorebieta-Etxanoko Udal Plangintzako Aholku Kontseilua eratzen da.

2.- Udal Plangintzako Aholku Kontseilua Amorebieta-Etxanoko Udalaren parte-hartzeko organo osagarria da, eta horren helburua da hiritarrek, Elkarteen bitartez, Udalerriko Gobernu Organoen erabakietan lagundu ahal izatea hirigintza arloan.

2. artikulua.- Atxikipena.

Hirigintza Plangintzako Aholku Kontseilua Hirigintza Plangintzan eskumena daukan Udalaren Sailari atxikitzen zaio.

3. artikulua.- Izaera juridikoa.

Hirigintza Plangintzako Aholku Kontseilua organo kolegiatu gisa eratzen da, eta Herri-administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legeak jasotzen duenaren arabera arautzen da.

I. TITULUA

UDAL PLANGINTZAKO AHOLKU KONTSEILUAREN EGINKIZUNAK, OSAKETA ETA TXOSTENAK EMATEA.

I. KAPITULUA

EGINKIZUNAK, HELBURUAK ETA TXOSTENAK EMATEA

4. artikulua.- Kontseiluaren funtzioak



**Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia**

1.- Kontseiluak udalerriko planeamendu orokorra osatzearen ardura duten administrazioek egindako azterketa, programa, ildo eta jarduera lerro guztiak ezagutuko ditu, planeamendua osatzen laguntzeko eta, edozein kasutan, txostena egingo du plan orokorra teknikoki lantzen hasi ondoren.

2.- Planeamenduaren aurrerapen bat jendaurrean ikusgai dagoen epean eman beharko du aginduzko txostena Aholku Kontseiluak eta aurrerapenik egongo ez balitz, hasiera batean onartutako agiria jendaurrean ikusgai dagoen epean.

3.- Aholku Kontseiluak beste edozein plan edota hirigintza egitura antolatzeko tresna ezagutu ahal izango du eta horri buruzko txostena egin, kideen gehiengo absolutoak hala erabakitzen badu. Kasu honetan, txostena espedientea jendaurrean ikusgai dagoen epean eman beharko da, hasiera batean onartu ondoren.

4.- Aintzat hartzen dituen kontuak aztertzen dituen agirietan argi gelditzen da Kontseiluaren parte-hartzea eta beraietan Administrazio publikoarentzat lotesleak ez diren proposamen edo aukerak jasotzen dira.

5.- Planeamendua onartzen duen administrazioaren aurrean Kontseiluak aurkeztutako proposamen edo aukerak behin betiko onarpenean jasotzen ez direnean, arrazoitu egin beharko da zergatik ez diren onartzen.

6.- Plangintza orokorraren egitura antolaketari eragiten dioten kasuetan izan ezik, Kontseiluak egozein gairen inguruan ez badu txostenik ematen, espedientea izapidetzen jarraitu ahal izango da, denboraz kanpo emandako txostenen edukia behin betiko onartzen denean kontuan izan beharrik ez delarik egongo.

7.-Era berean,Udalak bere esku duen udalaz gaindiko plangintzaren berri jaso ahal izango du.

5. artikulua.- Eraketa eta desegitea

Udal Erregelamenduan jasotakoaren arabera sortu ondoren, Kontseilua agintaldi bakoitzaren hasieran eratuko da eta agintaldia amaitzerakoan berau ere desegin egingo da.

II. KAPITULUA

UDAL PLANGINTZAKO AHOLKU KONTSEILUAREN OSAKETA

6. artikulua.- Osaketa.

Plangintzako Aholku Kontseiluak honako kide hauek izango ditu:

a) Mahaiburua:

- Udaleko Alkatea (zinegotzi baten esku utz dezake).



**Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia**

b) Idazkaria:

- Hirigintza alorrean eskarmentua duen Administrazio Orokorreko Teknikari bat, hitz egiteko eskubidea izan arren, botorik ezin duena eman. Udaleko Idazkari Nagusiak ordezkatu dezake.

c) Batzordekideak:

- Auzo elkarteak ordezkatzeko pertsona bat.
- Elkarte ekologikak edo ingurumenekoak ordezkatzeko pertsona bat.
- Emakumeen elkarteak ordezkatzeko pertsona bat.
- Merkatarien eta enpresaburuen elkarteak ordezkatzeko pertsona bat.
- Minusbaliatuen elkarteak ordezkatzeko pertsona bat.
- Nagusien elkarteak ordezkatzeko pertsona bat.
- Borondatez lan egiten dutenen elkarteak ordezkatzeko pertsona bat.
- Kultur elkarteak ordezkatzeko pertsona bat.
- Kirol elkarteak ordezkatzeko pertsona bat.
- Amorebieta-Etxanoko hezkuntza arloa eta Eskola Agenda 21 ordezkatzeko pertsona bat.
- Udaleko Hirigintza Informazio Batzordeko kideak.

d) Teknikariak: hitz egin dezakete baina ezin dute botorik eman.

- Hirigintza ardura duen saileko goi teknikari bat.

7. artikulua.- Batzordekide izateko ordezkariak izendatzea.

1. Alkateak Aholku Kontseiluko kideak izendatuko ditu, aurreko artikuluko erakunde bakoitzak egindako proposamenei jarraituz. Elkarteek pertsona bat baino gehiago proposatuko balute batzordekide berdinerako, Alkateak hartuko du erabakia eta horretarako alde aurretik, udal taldeekin hitz egingo du eta erabakia hartzerako orduan ordezkagaitasuna eta aukerak kontuan izan eta egokien deritzon bidea erabiliko du (zozketa, txandakatzea edota beste formularen bat).

2. Postu bakoitzerako pertsona titular bat eta ordezkari bi izendatuko dira.

3. Elkarteak Euskadiko elkarten erregistroan inskribatuta egon beharko dira Kontseilurako ordezkariak proposatu ahal izateko eta bere jarduerara Amorebieta-Etxanon garatu beharko dute.

8. artikulua.- Kontseiluko batzordekide titularren izendapena eta kargu-uztea.

1. Aholku Kontseiluko batzordekideak Alkateak Dekretu bidez izendatuko ditu. Izendapenaren proposamena aurreko artikuluan ezarritakoaren arabera egingo da.



**Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia**

2. Batzordekide titularren izendapenerako alde zurretik hauek onartzea beharrezkoa izango da.

3. Zinegotzi diren batzordekide titularrek Udalbatzan duten agintaldia amaitzen zaienean utziko dituzte karguak.

4. Gainontzeko batzordekide titularren karguen iraupena lau urtekoa izango da; hala ere, honako arrazoi hauengatik kargutik kendu ahal izango dira Alkatetza Dekretu bidez:

- Uko egite argiatatik edota heriotzagatik.
- Epai irmo batek kargu publikoa edukitzeko ezgaitasun edo gaitasungabetze-adierazpena ematen duenean.
- Beren karguagatik batzordekide direnek, izaera hori galtzen dutenean Batzordeko kargua utziko dute.
- Proposatzen duen erakundeak kargutik kentzen duenean.

5. Bete gabe dauden karguak izendapenerako erabilitako prozedura berarekin beteko dira, gehienez ere hiru hilabeteko epean.

6. Kontseiluak bere funtzionamendua antolatzeko aukera izango du eta horretarako, batzorde edota lan-taldeak sor daitezke aztertu beharreko gaien arabera.

II. TITULUA

ANTOLAKETA-EGITURA

I. KAPITULUA

KONTSEILUAREN ANTOLAKETA

9. artikulua.- Organoak.

Udal Plangintzako Aholku Kontseiluaren funtzionamendu organoak hauek dira:

- a) Mahaiburutza.
- b) Osoko bilkura.

II. KAPITULUA

MAHAIBURUTZA

10. artikulua.- Aholku Kontseiluko Mahaiburutza.



Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia

1. Udal Plangintzako Aholku Kontseiluko mahaiburua Udalbatzako Alkatea izango da.

Mahaiburua ez dagoenean edo hark bere kargua beste baten esku uzten duenean, kargua jaso berri duenak beteko du mahaiburu lana.

2. Mahaiburuaren eginkizunak honako hauek izango dira:

- a) Kontseiluaren eskumenen esparruan, indarrean dagoen legeria betetzen dela bermatzea.
 - b) Erregelamendu honek Kontseiluari ezartzen dizkion helburuak betetzen direla bermatzea.
- Hirigintza Plangintzaren eskumena daukan Informazio Batzordeari egindako deliberamenduen eta lortutako akordioen berri ematea. Horretarako, Aholku Kontseiluak egindako bileren aktak eman beharko zaizkio.
- d) Kontseiluaren osoko bilkuran lortutako akordioak betetzen direla ziurtatzea.
 - e) Aholku organoa istituzioetan, erakundeetan eta batzordeetan ordezkatzeta..
 - f) Ohiko eta ezohiko bilkuren deialdiak adostea eta gai-zerrenda ezartzea.
 - g) Aholku Kontseiluaren osoko bilkurak onartutako eskaerak, eskakizunak eta jarduerak dagozkion udal organora bideratzea.
 - h) Mahaiburutzak egoki deritzon edota batzordekideen erdiari Kontseiluko osoko bilkurara joateko gonbidapena egin (hitz egiteko eskubidea izango dute baina ezin dute botorik eman) aztertu beharreko gaien arabera.
 - i) Kontseiluko buru izateari dagozkion eginkizunak betetzea.
 - j) Ezarri dakizkiokeen beste batzuk.

3. Kontseiluko bilkuretan mahaiburuaren ardurak honako hauek izango dira:

- a) Bilkuren buru izatea, parte-hartze txandak antolatzea, eztabaidak moderatzea, proposamenak bozkatzea, batzarren ordena izanaraztea, eta, behar izanez gero, horretarako arrazoiak daudenean bilkura bertan behera uztea.
- b) Bozketaren baten berdinketa gertatzen denean, kalitateko botoaren bitartez erabakiak hartzea.

III. KAPITULUA

OSOKO BILKURA

11. artikulua.- Aholku Kontseiluko osoko bilkura.

1. Udal Plangintzako Aholku Kontseilua osatzen dute Erregelamendu honetako 6. artikuluan aipatzen diren kide guztiek eta Alkate-udalburua izango da mahaiburu.

2. Osoko bilkura izango da Kontseiluko erabaki-organo nagusia, eta atribuzio hauek dagozkio:



Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia

- b) Deialdia egiteko arrazoia izan diren gaien inguruko iritzia ematea.
- c) Bidezkoa bada, aurreko bilkurako akta onartzea.
- d) Udalerriko egitura-antolamenduaren plangintza prestatzeko edo ezartzeko egiten diren azterketak, programak, irizpideak eta jarduera ildoak jasotzea eta ezagutzea.
- e) Erregelamendu honen 4. art.an aipatzen diren txostenak ematea.
- f) Udal Gobernuako organoek bere eskumenen barruan eskatzen dizkioten azterketak egitea.
- g) Plan nagusiaren idazketa teknikoa hasten denean, horren berri ematea.
- h) Egoki ikusten badu, egiturazkoa ez den antolaketari buruzko hirigintza dokumentuei buruzko informazioa eskatzea.

IV. KAPITULUA

IDAZKARITZA

12. artikulua.- Aholku Kontseiluko idazkaritza.

Aholku Batzordeko idazkaritzak, lehendakariaren zuzendaritzapean, honako eginkizun hauek izango ditu:

- a) Bilkuren deialdiak egitea, eta horiekin batera joan beharko dute gai-zerrendak eta aurreko bilkurako aktak.
- b) Batzordeko bilkurara joatea; hitza izango du, baina botorik ez. Horien akta jaso, eta Mahaiburuarekin batera, sinatu.
- c) Artxibatze eta erregistro lanak, eta karguaren izaerari lotuta dauden bestelako eginkizunak betetzea.
- d) Planeamenduko Aholku Kontseilaren aktak egin eta erabakitzeko eskumena duten organoei honen proposamenak bidali.

III. TITULUA

FUNTZIONAMENDURAKO ARAUDIA

I. KAPITULUA

OSOKO BILKURA

13. artikulua.- Bilkurak.

1. Araudi honen 4. artikulua jasotzen duen aztertu beharreko udal onarpenaren egintza eman denean bilduko da Plangintzako Aholku Kontseilua ohiko bilkuran. Aipatu bilera ohikoa izango da eta egun batean edo hainbat egunetan zehar luzatu ahal izango da. Amaitzeko, aipatu txostena egin beharko du.



Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia

2. Dena dela, Batzordeak bilkura bereziak egin ahal izango ditu, presazko eta komenentziatzko arrazoiengatik, Mahaiburuak hala eskatuta edota Kontseiluko kideen erdiak gutxienez eskatzen badu.

14. artikulua.- Bertaratze quoruma

Bilkura baliozkoa izateko, lehen deialdian mahaiburua edo mahaiburu kargua hartu duen pertsonaz gainera, batzordekideen heren bat izan beharko da gutxienez. Quorum hori lortzen ez bada, ordu erdi geroago, bigarren deialdia izango da, eta mahaiburua edo mahaiburuari kargua hartu dion pertsonaz gainera, batzordekide bat eta Kontseiluko idazkaria izan beharko dira bertan.

15. artikulua.- Bilkuren deialdia.

1. Ohiko bilkuren deialdia mahaiburuak egingo du, horren berri eman behar duen hirigintza espedientea Udalak onartu ondoren, Erregelamendu honen 4. artikulua jasotzen duen bezala.

2. Ohiko bilera aipatu onarpena gauzatu eta ondorengo 15 egunetan egingo da. Deialdia egiten denetik bilera izango denera, gutxienez bi laneguneko tartea izan beharko da.

3. Deialdia egin baino hiru egun lehenago gutxienez idazkariak esku artean izan beharko ditu aztertu nahi diren gaiak.

4. Bilkuraren deialdi berezia egitea Kontseiluko Mahaiburuari dagokio, bere ekimenez edo Kontseiluko kideen erdiak hala eskatuz gero. Kasu honetan, bilera eskaria egin eta 15 eguneko epean egingo da. Deialdiarekin batera aztertuko diren gaien zerrenda eman beharko da.

II. KAPITULUA

DELIBERAMENDUAK ETA AKORDIOAK LOTZEA

16. artikulua.- Deliberamenduak.

Kontseiluko Mahaiburuak bilerak zuzenduko ditu, eztabaidak antolatu eta bileretan ordena egokia bermatzeko beharrezko neurriak hartuko ditu.



Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia

17. artikulua.- Akordioak lotzea.

1. Aholku Kontseiluko akordioak bertaratutako kideen gehiengo sinplearekin lotuko dira, Erregelamendu honek gehiengo osoa eskatzen duen kasuetan izan ezik. Berdinketa gertatuz gero, mahaiburuak kalitateko botoa izango du. Dena dela, ados ez dauden aldeek boto partikularra eman ahal izango dute eta kontrako arrazoiak jasota utzi.

2.- Lotutako akordioak aztertzen ari diren hirigintza espedientean txertatuko dira.

III. KAPITULUA

BARNE ARAUAK

18. artikulua.- Funtzionamendurako barne arauak.

Erregelamendu honi lotuta, funtzionamenduko barne-arauak ezarri ahal izango ditu Aholku Kontseiluak eta komisioak edo lan-taldeak sortu ahal izango ditu.

19. artikulua.- Lekua eta aktak

Deialdian bilkura egingo den lekua, eguna eta ordua jasoko dira.

20. artikulua.- Bitartekoak ematea

Hirigintza Planeamendu arloan Udalean eskuduna den sailak (honen barruan geldituko litzateke Aholku Kontseilua), funtzionamendu egokia izateko beharrezko bitartekoak emango dizkio.

V. KAPITULUA

KONTSEILUA DESEGITEA

21. artikulua.- Desegitea.

Osoko Bilkurak adosten duenean desegingo da Kontseilua, indarrean dagoen ordenamendu juridikoarekin bat eginez.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Erregelamendu honetan zehatz jasotzen ez denaren inguruan, Hirigintza Plangintzako Aholku Kontseiluak, bere funtzionamenduari eta jarduerari dagokionez,



Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia

azaroaren 26ko Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legeak II. Tituluaren II. Kapituluari jasotzen denari jarraituko dio. Gainontzeko xedapenetan, apirilaren 2ko Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legeak eta Antolakuntza eta Jarduera Erregelamenduak eta Toki Erakundearen Araubideak (2568/1986 Errege Dekretua) jasotzen dutenari jarraituko zaio.

XEDAPEN IRAGANKORRA

1. Erregelamendu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta, 30 eguneko epean, Alkateak Aholku Kontseiluan parte har dezaketen elkarteetara joko du, haiek beren hautagiak proposa ditzaten.

2. Udal Planeamenduko Aholku Kontseilua formalki eratuko da horretarako egingo den eratzeko bileran.

3. Kontseiluko Mahaiburuari Erregelamendu honetan ezarritakoa gauzatzeko eta garatzeko beharrezkoak diren xedapen eta argibideak emateko ahalmena uzten zaio.

AZKEN XEDAPENA

Erregelamendu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita 15 laneguneko epean indarrean sartuko da.

Amorebieta-Etxano, 2011ko abenduaren 9a.

ALKATEA,

Izp.: Izp.:David Latxaga Ugartemendia.